



ESKOLA KIROLAREN LURRALDE KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA

2011ko ekainaren 16ko 17:00etan, Kirol Etxeko Juan Muguerza aretoan, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren ohiko bilera izan da. Deialdiaren gai-zerrenda osatzen duten gaiak jorratu dituzte bertan.

Bertaratuak honakoak izan dira:

- * Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik
 - Iñaki Ugarteburu, Kirol zuzendari nagusia, bileran buru izan dena.
 - Carlos Alfonso, Kirol Zerbitzuko burua.
 - Imanol Fernández de Larrinoa, kirol teknikaria.
 - Ramón Martiarena, Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuko idazkari teknikoa.

- * Gipuzkoako udalen aldetik
 - Arkaitz Angiozar, Lezoko Udalekoa.
 - Ramón Mujika, Elgoibarko Udalekoa.
 - Edorta Badiola, Zarauzko Udalekoa.
 - Manolo Aierbe, Hernaniko Udalekoa.
 - Beatriz Mena, Villabonako Udalekoa.

- * Kirol federazioen aldetik
 - Teresa Ortego, Judo Federaziokoa.
 - Jose Angel Rial, Karate Federaziokoa.
 - Pedro Echarri, Saskibalo Federaziokoa.

- * Ikastetxeen aldetik
 - Gari Ibarzabal, Arrasateko Arizmendi Ikastolakoa.
 - Pako Urrestarazu, Ataungo Joxe Miel Barandiaran-ekoa.
 - Fernando Urien, Zarauzko Lizardi Institutukoa.
 - Aitor Pérez, Errenteriako Orereta Ikastolakoa.

Banatutako dokumentazioa

- . 2011ko maiatzaren 5eko bileraren akta.
- . 2011/2012 ikasturterako eskola kiroleko jarduera programaren zirriborroa.
- . Ur jardueretan hasteko zerbitzuak ematen dituzten zentroak homologatzeko araubidea erregulatzeko foru aginduaren zirriborroa.
- . Gipuzkoako eskola kirolaren egoera analizatzeko 2011ko martxoaren 23an Kirol Etxean egindako lantegi baten akta.
- . Gipuzkoako eskola kirolaren AMIA analisisa, aipatu lantegian egina.



. 87/2011 Foru Agindua, maiatzaren 19koa, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren parte diren entitateak izendatzekoa haren berritze partzialaren ondotik.

1) 2011ko maiatzaren 5eko bilkurako akta onartzea.

Bertan direnek aho batez onartu dute.

2) 2011/2012 ikasturterako eskola kiroleko jarduera programa.

Imanol Fernández de Larrinoak gaia azaldu du, adieraziz ezen programaren zirriborroari ekarpenak egiteko epea maiatzaren 30ean amaitu dela. Aurkeztutako proposamenen artean, honakoak aipatu ditu:

- Igeriketa, gimnasia, esgrima eta hipikako hastapen jardueretako prezioak igotzea.
- Gipuzkoako Gimnasia Federazioak doiketa batzuk proposatu ditu hastapen jardueretarako, eta urtean fitness jardunaldi bat egitea, horretan aerobica, batuka eta hip hopa sartuta.
- Txuri Urdin I.H.T.k izotz hockeyrako hastapen jarduera espezifikokoak sartzea planteatu du.
- Gipuzkoako Arku-Tiro Federazioak bere modalitaterako hastapen jarduerak sartzea eskatu du.
- Lezoko Udalak eskatu du hastapen jardueretan onartzea desgaitasun psikikoa duten 16 urtetik gorako eskolaumeak, nahiz horiek bigarren hezkuntzako zentroetan hartzen duten eskola.
- Aitor Zabala Asuak, gorputz hezkuntzako irakasleak, ekarpen batzuk egin ditu eskola kirolaren heziketa alderdiari buruz, alderdi hori eta kirol anitzeko praktika hobetzeko proposamen batzuekin batera.

Aldaketa proposamenei inolako eragozpenik jarri ez zaienez, adierazi du programaren behin betiko bertsioan jasoko direla, foru agindu bidez onartzera begira.

3) Ur jardueretan hasteko zerbitzuak ematen dituzten zentroak homologatzeko araubidea erregulatzea.

Imanol Fernández de Larrinoak puntu hau azaldu du, adieraziz ezen aurkezten den foru aginduaren zirriborroa prestatzeko prozesua luzea izan dela, zeren eta lehen-lehenik argitu egin behar izan baita zer ulertzen den ur ingurunera egokitzeko jarduerak, kirol



modalitate zehatz batean hasi aurretikoak, aipatzen direnean. Gogoeta prozesu hori amaituta bi arauketa aukera sortu dira: zerbitzuak ematen dituzten zentroentzako baimenak emateko prozedura eta irakaskuntzaren metodologiari dagokionez baldintza jakin batzuk betetzen dituzten zentroen homologazioa.

Era berean, aipatu du zentro horietako zuzendariei goi mailako entrenatzaile titulua eskatuko zaiela.

Esan du gai hau Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluan aurkeztzen dela, logikoa den moduan eskola kirolari eragiten dion araudi bat delako.

Hurrena gainera aipatu du foru aginduaren zirriborroaren edukia, hau da, aurkeztutako araudia.

Arkaitz Angiozarrek, ondoren, jarraituko den prozeduraren galdea egin du.

Imanol Fernándezek erantzun du planteatzen diren aldaketak jasotzen dituen zirriborroa entitate eta eragile interesdunei bidaliko zaiela.

Arkaitzek galdetu du homologazioa urtero berri behar ote den.

Imanolek erantzun du homologazioaren ondotik sartzen den aldaketa oro jakinarazi behar dela.

Horren paraleloan, zerbitzuak emateko zentroak irekitzeko baimena ematea arautuko da. Zentro homologatuak eta ez homologatuak egon ahal izango dira aldi berean, baina agian azken horiei ez zaie emango igerian ikasteko hastapen kanpainako diru laguntzak eskuratzeko aukerarik. Baliteke, halaber, klub batek eskola homologatu batzuk eta homologatu gabeko beste batzuk ematea.

4) Gipuzkoako Futbol Federazioarekiko harremanak

Carlos Alfonsok azaldu du atal hau, adieraziz ezen aspalditik badela lan batzorde bat, Real Sociedad taldearen, Gipuzkoako Futbol Federazioaren eta Foru Aldundiaren ordezkari osatu bat, eta horren barnean, orain urte pare bat, akordio bat lortu zela eskola mailako futbolaren inguruan, bai futbol eskolei dagokienez bai errendimenduan hasteko lehiaketetan parte hartzen duten klubak izendapenari dagokionez. Herri batzuetan bete egin dira akordio horretan jasotako baldintzak; beste batzuetan, aldiz, ez. Aurrera egiteko ahaleginak egin dira, eta harremanak ere hobetu egin dira neurri batean.

Batzordearen azken bileran Donostiako klub jakin batzuen proposamena aztertu zuten. Horretan eskatzen zuten libre izatea taldeen izen ematea 2. urteko kimu mailako errendimenduan hasteko lehiaketan. Proposamen hori Gipuzkoako beste klubei ere igorri diete, horiek bat egin eta Federazioaren batzarrak proposamena onartzera begira.



Aldundiak adierazi zuen Federazioaren batzarrak ez duela eskumenik eskola kirolaren arloan, zeren eta EAeko araudiak argi eta garbi ezartzen baitu eskola kirola autonomi eta foru herri administrazioei dagokiela. Ez daki batzarrean jarrera frentistarik izango den, ez dakielako ekimen horrek Gipuzkoako beste klubetan artean zenbateko babesa bildu duen.

Era berean, gogorazi zuen dagoeneko badela futbol eskolek 2. urteko kimu mailako eskolaumeak (eta urte gehiagokoak) hartzeko aukera, eta orain arte eskola askok ez dituztela hartu; eskolaume horiek elkarren kontrako lehiaketa jardueretan aritu daitezke, kirol eskolak erregulatzeko araudiak ezarritako maiztasunaren arabera. Osterantzean, kimu mailako errendimenduko lehiaketan bakar-bakarrik maila horretan matrikulatutako ikasleetatik % 20k har dezake parte. Datorren ikasturte honetan aurrekoan baino talde bat gehiagok izango du parte hartzeko aukera (guztira 41 talde), matrikulazioak gora egin baitu 2010-2011 ikasturtearekiko.

2011-2012 ikasturtera begira, adostu da mutilen kimu mailako errendimenduan hasteko lehiaketetako eta eskoletako jardueretako partaide guztiek parte hartu beharko dutela, halaber, bere ikastetxeekin, kasuan kasuko modalitateko lehiaketetan.

Fernando Urienek eskertu egiten du gai honetan Foru Aldundiak duen jarrera. Berak pertzepzio bera du futbol eskoletan gertatzen denaren inguruan, horietan kimu mailako 2. urtetik gora jarduteaz ez arduratzeaz gain, lehentasuna ematen baitiete errendimendurako aukera daukaten eskolaumeei (mutilei). Orain badirudi besteak ere atendituko dituztela, besteak beste dituzten diru sarrerak areagotzearen. Uste du orain izotzaldia urtzen ari direla, eta horien atzetik eskubaloi eta saskibaloi klubak norabide berean hasiko direla mugitzen.

Susana Santorrek ere Aldundiaren jarrera estimatzen du, kirol aniztasuna bultzatzen duelako. Adierazi du bere zonako klubak kaltetuta sentitzen direla, akordioaren % 100 betetzen dutelako, eta Donostiakoek, aldiz, betetzen ez dutelako.

Carlos Alfonsok dio planteamendua dela eskolen arteko lehiaketa jardueretan parte hartu ahal izateko izena emandako eskolaumeetatik gutxienez % 75ek betetzea modalitate horretako partaidetza lehiaketetan bere ikastetxeekin parte hartzeko baldintza. 2010-2011 ikasturtean zehar, % 50eko portzentajea gainditu dutenei baimendu zaie parte hartzea. Errendimenduan hasteko lehiaketan % 100eko portzentajea beharko da, zeren eta bestela ez baitzaie lizentziarik emango.

Fernando Urienek aipatu du Zarautz K.E. futboleko kimu mailako 2 talde ateratzeko deialdiak egiten ari dela. Argitu nahi du, halaber, eskubaloi eskolaren portaera akasgabea izan dela, ikastetxeenarekin koordinatu eta adostu baitu bere jarduerak; futbol sekzioarekin ez da horrelakorik gertatu.

Arkaitz Angiozarrek proposatu du Gipuzkoako Futbol Federazioari eskatzea eskolen ez-betetze agerikoak Federazioak berak salatu eta tratatzea, eta kirol mailako zigorrak ezartzea.



Ramón Mujikak dio saritu egin beharko liratekeela eskoletan behar bezala lanean ari diren klubak.

Imanol Fernández de Larrinoak uste du beti kexak egongo direla, gauzak desberdinen neurtzen direlako; izan ere, alde handiak daude eskolen jardueren (entrenamendu egun bat astean, lehiaketa bat hiletan) eta errendimenduan hasteko lehiaketako taldeen jardueren (bi entrenamendu egun astean, lehiaketako 18 partida ikasturtean zehar) artean.

Edorta Badiolak dio kasu batzuetan mutil berak ari direla jokatzeko futbol, saskibaloia eta eskubaloiko errendimenduko lehiaketetan, azken bi modalitate horietan ez baitago erregulaziorik.

5) *Bestelakoak*

Imanol Fernándezek azaldu egin du Kirol Etxean egindako lantegi baten barnean garatu zen Gipuzkoako eskola kirolaren egoerari buruzko gogoeta orokorra; lantegi horretatik, bertaratuei banatu zaien AMIA analisi interesgarri bat ere sortu zen. Ekarpenak egiteko epe bat zabalduko dutela esan du.

Eta, aztertzeko beste gairik ez dagoenez, hasieran adierazitako eguneko 18:00etan amaitu da bilera.

Presidentea

Idazkaria